

## I IKASTETXEAREN ANTOLAKUNTZA

### 1. Atala KUDEAKETA-ORGANOAK

1. 1 Mendebaldea Bigarren Hezkuntzako Institutuak honako kudeaketa-organo hauek izango ditu:

- a) Batzar-organoak:
- Ordezkaritza Organo Gorenak Eskola Kontseilua izena izango du.
  - Eskola Kontseiluko batzordeak:
    - Batzorde Iraunkorra.
    - Bizikidetzatza Batzordea.
    - Ekonomi Batzordea.
    - Segurtasun eta Higiene Batzordea.
    - Euskara eta Kultura Batzordea
  - Gurasoen Asanblada.
  - Guraso Elkarteak.
  - Ikasle taldearen ordezkariak.
  - Klaustroa.
  - Zuzendaritza-taldea.
- b) Pertsona bakarreko organoak:
- Zuzendaria.
  - Ikasketaburua.
  - Ikastetxeko Idazkaria.

1. 2 Zuzendaritza taldeari nahiz kudeaketa-organo desberdinei atxikitutako pertsona kopurua egokitzen joango da kargu berriekin Ikastetxearen beharren arabera.

### 2. Atala ESKOLA KONTSEILUA

2. 1 Osaketa: Eskola Kontseilua honako partaide hauek osatuko dute:

- Ikastetxeko zuzendaria Kontseiluko presidentea izango dena.
- Ikasketaburua
- Irakasleen 12 ordezkari.
- Gurasoen 9 ordezkari.
- Ikasleen 9 ordezkari.
- Hezkuntza-arreta osagarriaren langileen ordezkari bat.
- Administrazio eta Zerbitzuen langileen ordezkari bat.
- Udaleko ordezkari bat.
- Idazkaria, hitza badu baina botorik ez.

2. 2 Eskola Kontseiluaren partaideen kopurua egokituz joango da irakasle, ikasle eta gurasoen kopuruaren arabera.

2. 3 Egitekoak: Eskola Kontseiluaren funtzioak Euskal Eskola Publikoaren legeak 31.2 atalean esleitzen dizkionak dira eta legeriak ezartzen dituenak:

## I ORGANIZACIÓN DEL CENTRO

### Artículo 1 ORGANOS DE GESTIÓN

1. 1 El Instituto de Enseñanza Secundaria Mendebaldea contará con los siguientes órganos de gestión:

- a) Órganos colegiados:
- El Órgano Máximo de Representación, que se denominará Consejo Escolar.
  - Las comisiones del Consejo Escolar:
    - Comisión Permanente.
    - Comisión de Convivencia.
    - Comisión Económica.
    - Comisión de Seguridad e Higiene.
    - Comisión de Euskera y Cultura.
  - La Asamblea de madres y padres.
  - Las asociaciones de madres y padres.
  - Las delegadas y delegados de clase.
  - El Claustro.
  - El Equipo Directivo.
- b) Órganos unipersonales:
- La Directora o Director.
  - La/el Jefa/e de Estudios.
  - La Secretaria o secretario.

1. 2 El número de personas adscritas a la dirección del centro y a sus diferentes órganos de gestión se irá adecuando según las necesidades del mismo.

### Artículo 2 EL CONSEJO ESCOLAR

2. 1 Composición: El Consejo Escolar estará compuesto por las siguientes personas:

- La directora o director del centro que será su presidente.
- El/la Jefe/a de Estudios
- 12 representantes del profesorado.
- 9 representantes de padres y madres.
- 9 representantes del alumnado.
- Un/una representante del personal de atención educativa especial
- Un/una representante del personal de Administración y Servicios.
- Un/una representante de la Corporación Municipal.
- El/la secretario/a, con voz pero sin voto.

2. 2 El número de miembros del Consejo Escolar se irá adecuando progresivamente al número de alumnos y alumnas, profesorado y familias.

2. 3 Funciones: las funciones del Consejo Escolar son las que le asigna la Ley de la Escuela Pública Vasca en su artículo 31.2 y la legalidad vigente:

- |  |   |
|--|---|
| <p>a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudia eta Kudeaketa Proiektua onartzea; bete daitezen begiratzea eta, Ikastetxeko Urteko Memoriaren onarpenaren bidez, ebaluatzea.</p> <p>b) Institutuaren Urteko Plana onartzea, irakasle Klaustroaren konpetentziak atalean dioenaren kaltetan izan gabe.</p> <p>c) Prestakuntza jardueren, eskolaz kanpokoan eta osagarriezkoen egitaraua eta Urteko kudeaketa egitaraua onartzea, horien jarraipena eta aldizkako ebaluazioa bere gain hartuz.</p> <p>d) Zuzendari hautapen prozesuan parte hartzea legeriak ezartzen dituen prozesuen arabera.</p> <p>e) Ikasle berrien onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araubidean agindutakoari bete-betean lotuz.</p> <p>f) Ikasleen jarrerak direla eta, beraiei ezarritako neurri zuzentzaileei buruzko erreklamazioak tratatzea, "Ikasleen Eskubide eta Betebeharrak" dekretuak arautzen duenaren arabera.</p> <p>g) Beste ikastetxe batzurekin lankidetzaren harremanak izatea kultura eta hezkuntza arloetan.</p> <p>h) Institutuko instalazio eta tresneriaren aldaberrikuntza sustatzea, bai eta haien iraupena zaintzea ere.</p> <p>i) Ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza eremuetan.</p> <p>j) Era adostuan Eskola Kontseiluan ordezkoen faltagatik sortzen diren bakanteak betetzea.</p> <p>k) Urteko egutegia onartzea.</p> <p>l) Batzordeak, iraunkorrak nahiz behin-behinekoak, sortzea.</p> <p>m) Euskal Eskola Publikoaren legeak edo beste arau batzuek edo AFA honek eman ahal dioten beste edozein aginpide.</p> <p><b>2. 4 Laguntzak:</b> Eskola Kontseiluak bere funtzioak betetzeko honako laguntza hauek eskatu ahal izango ditu:</p> <p>a) Institutuko gainontzeko partaidetza organoei bheren iritzia eskatzea, bheren interes bereziagatik hala eskatzen duten gaietan.</p> | <p>a) Aprobare el Proyecto Educativo del Centro, el Reglamento de Organización y Funcionamiento y el Proyecto de Gestión; velar por su cumplimiento y realizar su evaluación mediante la aprobación de la Memoria Anual del Centro.</p> <p>b) Aprobare el Plan Anual del Centro, sin perjuicio de lo dispuesto en las competencias del Claustro de profesoras y profesores.</p> <p>c) Aprobare el Programa de actividades de formación, extraescolares y complementarias y el Plan anual de gestión, asumiendo su seguimiento y evaluación periódicas.</p> <p>d) Participar en la elección del /la Director@ en los procesos establecidos por la legalidad vigente.</p> <p>f) Decidir sobre la admisión de alumnado, con sujeción estricta a lo establecido en la normativa vigente.</p> <p>g) Tratar las reclamaciones sobre medidas correctoras impuestas al alumnado según su conducta de acuerdo con las normas establecidas en el Decreto de Derechos y Deberes del alumnado.</p> <p>h) Establecer relaciones de colaboración con otros centros con fines culturales y educativos.</p> <p>i) Promover la renovación de las instalaciones y el equipo escolar, así como vigilar su conservación.</p> <p>j) Supervisar la actividad general del Centro en los aspectos administrativos y docentes.</p> <p>k) Resolver, de forma consensual, la provisión de vacantes no cubiertas dentro del Consejo Escolar por falta de suplentes.</p> <p>l) Aprobare el calendario escolar anual.</p> <p>m) Constituir comisiones con carácter estable o con carácter puntual.</p> <p>n) Cualquier otra competencia que le sea atribuida por la Ley de Escuela Pública Vasca, por otras normas o por el presente R.O.F.</p> <p><b>2. 4 Apoyos:</b> El Consejo Escolar, para el cumplimiento de sus funciones, podrá recabar los siguientes apoyos:</p> <p>a) Solicitar la opinión, en asuntos de especial interés, a los órganos de participación de los diferentes colectivos de la Comunidad Escolar.</p> |
|--|---|

|  |  |
|--|--|
| <p>b) Laguntza zerbitzuei (PAT...), Ikuskaritzari eta Administrazioari oro har, bere funtzioak betetzeko beharrezko dituen datu, txosten eta laguntzak eskatzea.</p>   | <p>b) Solicitar a los servicios de apoyo (COP...), a la Inspección y a la Administración en general los datos, informes y asesoramientos que considere oportunos.</p>  |
| <p>c) Hezkuntza gaitan adituak diren teknikoei ikerketak eskatzea.</p>   | <p>c) Encargar a personas técnicas en educación la realización de estudios.</p>  |
| <p><b>2. 5 Ordezkapena:</b> Eskola Kontseiluko partaideak ez dira inoren agintepean arituko bere ordezkapen eginkizunetan.</p>   | <p><b>2. 5 Representación:</b> Los miembros del Consejo no estarán sometidos a mandato imperativo en su representación.</p>  |
| <p><b>2. 6 Bilerak:</b> Eskola Kontseila bilduko da gutxienez hiruhilean behin derrigorrean. Lehenengo hiruhilabetearen bileran Ikastetxeko Urteko Planaren eztabaida eta onarpena egingo da eta hirugarren hiruhilabetearen Urteko Memoriaren ikerketa eta onarpena. Halaber, Eskola Kontseilua bilduko da behar den guztietan ezohiko bileretan.</p> | <p><b>2. 6 Reuniones:</b> El Consejo Escolar se reunirá con carácter obligatorio y ordinario una vez al trimestre. En la reunión del primer trimestre se incluirá el debate y aprobación del Plan anual del centro y en la reunión del tercer trimestre el análisis y aprobación de la Memoria anual. Así mismo el Consejo Escolar podrá reunirse, de forma extraordinaria, siempre que sea necesario.</p> |
| <p><b>2. 7 Deialdiak:</b> Eskola Kontseilua biltzeko ahalmena eta eginkizuna dute:</p>   | <p><b>2. 7 Convocatorias:</b> Tienen la facultad y la obligación de convocar el Consejo Escolar:</p>   |
| <p>a) Zuzendariak, Kontseiluko presidentea izanik, egin beharko du Eskola Kontseiluaren ohiko bilheren deialdia.</p>   | <p>a) La directora o director, en su calidad de presidenta/e del mismo, deberá convocar al Consejo cuando se trate de sesiones ordinarias.</p>   |
| <p>b) Ezohiko bilheren deialdia ere egin behar du Zuzendariak Batzar Iraunkorrak, Kontseiluan ordezkaturiko alderdietako batek edota Eskola Kontseiluko partaideen hheren batek eskatzen duenean.</p>  | <p>b) Deberá así mismo convocar al Consejo en sesión extraordinaria cuando lo solicite la Comisión Permanente o una de las partes representadas en el Consejo Escolar o un tercio de sus miembros.</p>   |
| <p>c) Zuzendariak berak ere Eskola Kontseilua bildu ahal izango du ezohiko bileran Ikastetxearen onerako beharrezkoa ikusten duen guztietan. Ezohiko deialdiak 2 lan eguneko aurrerapenez egin beharko dira.</p>   | <p>c) El Director/a podrá convocar al Consejo de manera extraordinaria siempre que lo estime conveniente para los intereses del Centro, las convocatorias extraordinarias deberán realizarse con una antelación de 2 días hábiles.</p>   |
| <p><b>2. 8 Deialdiak</b> bost eguneko aurrerapenez egingo dira ohiko deialdiei dagokienean. Deialdiarekin batera eztabaida edota onarpengai izango den dokumentazioa ere erantsiko da ahal bada. Deialdian bilera eguna, ordua eta gaiordena zehaztuko dira beti.</p>  | <p><b>2. 8</b> Las convocatorias se efectuarán con cinco días de antelación como mínimo, aportando, siempre que sea posible, la documentación que vaya a ser objeto de debate y, en su caso, de aprobación, indicando fecha, hora y orden del día.</p>   |
| <p><b>2. 9</b> Kontseiluko edota Komisioetako partaideek aztertu behar dituzten dokumentuak bheren esku egon beharko dute bilera data baino bost egun lehenago, eztabaidatuko eta onartuko diren bilera baino lehenago aztertu ahal izateko.</p>   | <p><b>2. 9</b> Los documentos objeto de estudio por el Consejo o por cualquiera de sus comisiones deberán estar a disposición de todos sus miembros con cinco días de antelación para que puedan ser estudiadas antes de la celebración de la sesión en que vayan a ser debatidas.</p>   |
| <p><b>2. 10</b> Gaiordena Batzorde Iraunkorrak egingo du.</p>  | <p><b>2. 10</b> El orden del día será elaborado por la Comisión Permanente</p>   |
| <p><b>2. 11</b> Aktak: Ikastetxeko Idazkariak jasoko ditu Eskola Kontseiluaren aktak. Zuzendaritzan gordeko dira eta Institutuko edozein partaidek aztertu ahal izango ditu, horrela eskatzen badu.</p>  | <p><b>2. 11</b> Actas: El/la Secretario/a levantará acta de las reuniones del Consejo Escolar. El libro de actas estará a disposición de los miembros de la</p>  |

**2. 12** Eskola Kontseilua, ohikoa edo ezohikoa balio osoz eratuko da lehen deialdian, bertan ordezkarien %50a biltzen denean, baldin eta Institutuko estamentu guztiak ordezkaturata badaude, bestela bilera ez da eratuko. Bigarren deialdian, berriz Kontseiluko Bilera balio osoz eratu ahal izango da edozein bada ere bertan daudenen ordezkarien kopurua.

**2. 13** Eskola Kontseiluaren batzordeen eraketari dagokionez, honako prozedura erabiliko da:

Batzordeak eratu ahal izateko bertan egon beharko du ikasle, irakasle eta gurasoen ordezkari batek gutxienez.

**2. 14** Erabakiak eta akordioak: Eskola Kontseiluak erabakiak gehiengo soilez hartuko ditu, ondoko kasuetan izan ezik:

- a) Zentroko Hezkuntza Proiektuaren, eta Antolamendu eta Jarduera Araudiaren onarpena egiterakoan, bai eta egin ahal izango diren aldaketak egiterakoan ere. Onarpen hauek, Eskola Kontseiluko kide guztien botoen bi hiruren gehiengo bidez egingo dira.
- b) Zuzendariaren izendapenaren berritze-proposamena, bertako kideen bi hherenen gehiengoaren bidez egingo da, espediente bat martxan ipini eta gero..
- c) Hezkuntza-administrazioko xedapen orokorren batek exijitzen duen kasuetan.

**2. 15** Kontseiluak hartutako akordiek ez dute baliorik izango Araudi honetan finkatutako irizpiden aurka joango balira.

**2. 16** Bheren lantze-prozesuaren edozein momentutan forma nahiz prozedurazko akatsak aurkezten dituzten Kontseiluaren erabakiak edo akordioak baliogabetu ahal izango dira. Inpugnazioa Eskola Komunitatearen edozein partaidek egin ahal izango du arrazoindutako idatzi baten bidez, Institutuko Zuzendariari bidalia, baliogabetu nahi dituen akordio edo erabakien berri izan zuenetik 20 egun naturalen epearen barruan, Araudi honen 1.3. eta 1.13. artikuluen arabera.

**2. 17** Eskola Kontseiluan hutsuneak betetzeko prozedura: Eskola Kontseiluaren baitan hutsune edota dimisiorik gertatuko balitz, betetzeko azken hauteskundearen erreserbako zerrendetara jo beharko da. Horretarako, hauteskunde guztietan ordezkarien zerrendak egingo dira.

Comunidad Educativa en la dirección del Instituto.

**2. 12** El Consejo Escolar, ordinario o extraordinario, quedará válidamente constituido en primera convocatoria cuando acudan a la misma al menos el 50% de sus miembros siempre que estén representados todos los estamentos, si no, no se constituye. En segunda convocatoria será válida la constitución del Consejo cualquiera que sea el número de asistentes.

**2. 13** Respecto a la constitución de las comisiones del Consejo Escolar, se utilizará el siguiente procedimiento:

Para la constitución de las distintas comisiones deberá estar presente al menos un/a representante del alumnado, otro de las familias y otro del profesorado.

**2. 14** Decisiones y acuerdos: El Consejo Escolar adoptará los acuerdos por mayoría simple, salvo en los siguientes casos:

- a) La aprobación del Proyecto Educativo y del Reglamento de Organización y Funcionamiento del centro, así como sus posibles modificaciones, que se realizarán por mayoría de dos tercios de los votos de todos los miembros que componen el Consejo Escolar.
- b) La propuesta de revocación del nombramiento del director o directora que se realizará por mayoría de dos tercios de los miembros del Consejo, tras la instrucción de expediente.
- c) En los casos en que lo exija alguna disposición general de la administración educativa.

**2. 15** Todo acuerdo o decisión del Consejo que se tome en contravención de lo dispuesto en este reglamento será nulo.

**2. 16** Serán anulables los acuerdos o decisiones que padezcan defectos de forma o procedimiento en cualquier etapa de su elaboración, de acuerdo con lo dispuesto en este reglamento. Podrá impugnar dichos actos cualquier miembro de la Comunidad Educativa por medio de escrito razonado entregado al director/a, en un plazo de 20 días naturales desde que tuvo conocimiento de los mismos, conforme a lo dispuesto en los artículos 1.3. y 1.13. de este reglamento.

**2. 17** Provisión de vacantes en el Consejo Escolar: Si en el seno del Consejo se produjeran vacantes o dimisiones, se acudirá para cubrirlos a las listas de reserva de las últimas elecciones celebradas. Con este fin, en cada una de las elecciones, se confeccionarán listas de suplentes.

**2. 18** Arazoen konponketa: Eskola Kontseiluaren baitan Araudi honen interpretazioari buruz, aplikatu behar den arauari buruz edo arau-eza dagoelako, konponezineko arazorik gertatuko balitz Kontseiluak arazoa sortzen duen gaia galdera gisa planteatuko dio horretarako eratu den interpretazio batzordeari. Batzorde honen partaideak honako hauek izango dira:

- Lurralde Ordezkaritzako lege-aholkulari bat.
- Ikuskaritzako partaide bat.
- Eskola Kontseiluan parte hartzen duen Udaleko ordezkarria.

**2. 19** Interpretazio komisioak bere erabakia aurkeztuko du arrazoindutako idatzi baten bidez. Erabakia apelaezina izango da.

**2. 20** Eskola Kontseiluak bere zeregin eta erantzukizunen betetzea Batzorde Iraunkorraren esku utzi ahal izango du, jarraian aipatzen diren kasuak salbu:

- a) Ikastetxeko Hezkuntz-Proiektua onartzea.
- b) AFA onartzea eta bertan aldaketak egitea.
- c) Ikastetxeko Urteroko Plana eta Urteroko Kudeaketa Egitaraua.
- d) Ikastetxeko Urteroko Memoria.

### **3. Atala** **ESKOLA KONTSEILUKO** **PRESIDENTEAREN AGINPIDEAK**

**3. 1** Eskola Kontseiluko Lehendakariaren eginbeharrak:

- a) Eskola Kontseiluko ordezkaritza eduki.
- b) Ohiko eta ezohiko bilheren deialdia, eta gai-zerrenda erabaki; kasu horretan, gainerako kideek nahikoa denborarekin egindako eskaerak kontuan hartuz.
- c) Bilheren buru izan, eztabaidak moderatu, eta arrazoi justifikaturik egonez gero, bertan behera utzi.
- d) Bere botoarekin berdinketak desegitea, beharrezko erabakiak hartu ahal izateko.
- e) Indarrean dauden legeak eta arauak betetzen direla ziurtatu.
- f) Eskola Kontseiluaren erabakien aktak eta ziurtagiriak ikus-onetsi.

**3. 2** Lehendakariak ez balego, ez etortzerik,

**2. 18** Solución de problemas: Si en el seno del Consejo Escolar surgieran diferencias insalvables sobre la interpretación de este reglamento, sobre la norma que se va a aplicar o lagunas normativas, el Consejo formulará, en forma de pregunta, una consulta escrita sobre el punto o puntos controvertidos que se remitirá a una comisión de interpretación compuesta por:

- Un/a asesor/a jurídico/a de la Delegación.
- Un miembro de la Inspección Educativa.
- El/la representante del Ayuntamiento en el Consejo Escolar.

**2. 19** La comisión de interpretación dictaminará su resolución en escrito razonado. Dicha resolución será inapelable.

**2. 20** El Consejo Escolar tendrá la facultad de delegar en la Comisión Permanente el desempeño de sus funciones y competencias, con las siguientes excepciones:

- a) Aprobar el Proyecto Educativo del Centro.
- b) Aprobar y modificar el ROF.
- c) Aprobar el Plan Anual del Centro y el Programa Anual de Gestión.
- d) Aprobar la Memoria Anual del Centro.

### **Artículo 3** **COMPETENCIAS DE LA PRESIDENCIA DEL** **CONSEJO ESCOLAR**

**3. 1** Corresponde a La Presidencia del Consejo Escolar:

- a) Ostentar la representación del Consejo Escolar.
- b) Acordar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones de los demás miembros formuladas con la suficiente antelación.
- c) Presidir las sesiones, moderar el desarrollo de los debates y suspenderlos por causas justificadas.
- d) Dirimir con su voto los empates, a efectos de adoptar los correspondientes acuerdos.
- e) Asegurar el cumplimiento de las leyes y normativas vigentes.
- f) Visar las actas y certificados de los acuerdos del Consejo Escolar.

**3. 2** En caso de vacante, ausencia, enfermedad, u

gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalik izanez gero, Lehendakaria, ikastetxeko Ikasketa Buruak ordezkaturako du, edo azken kasuan, Eskola Kontseiluko kide izango den antzinatasun handieneko irakasleak.

#### **4 Artikulua** **ESKOLA-KONTSEILUKO** **BATZORDEKIDEEN ESKUDUNTZAK**

**4. 1** Ordezkaritza Organo Goreneko kideei dagokie:

- a) Kontseiluko Lehendakariak egiten dien deialdien jakinarazpena gutxienez bost eguneko aurrerapenez jasotzea. Jakinarazpenarekin batera gai-zerrenda eta, behar izanez gero, eztabaidatzeko gaiarekin lotutako aldez aurreko dokumentazioa.
- b) Bileretako eztabaidetan parte hartzea.
- c) Beti pertsonala eta bestherenezina izango den botoa emateko eskubidea erabiltzea, botoa ematea, eta botoaren zentzua eta justifikatzen duten arrazoiak adieraztea.
- d) Eskariak eta galderak egitea gaiordenaren puntuekin bukatu eta gero.
- e) Esleitutako funtzioak betetzeko beharrezko informazioa lortzea.

**4. 2** Eskola Kontseiluko kideek ezin izango dituzte kontseilu honi aitortutako ordezkari-tasun-funtzioak eurek hartu, arau baten edo, Kontseiluak berak kasu bakoitzerako hartutako erabakiaren bidez emandako baimen zehatzaren bidez ez bada.

#### **5. Artikulua** **ESKOLA-KONTSEILUKO IDAZKARIAREN** **ESKUDUNTZAK**

**5. 1** Eskola Kontseiluko Idazkariaridagokio:

- a) Bileretan hitza bai baina botorik gabe parte hartzea.
- b) Organoaren bilheren deialdia Lehendakariaren aginduz egitea, bai eta organoko kideei deitzea ere.
- c) Kontseiluko kideen komunikazioko ekintzak jasotzea; beraz, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo ezagutu beharko dituzten bestelako edozein idazki.
- d) Gaien izendapena prestatu eta bileretako aktak idaztea.

otra causa legal, la presidenta o presidente será sustituida/o por el/la Jefe/a de Estudios del Centro o, en último caso, por el profesor o profesora de mayor antigüedad en el Centro que sea miembro del Consejo Escolar.

#### **Artículo 4.** **COMPETENCIAS DE LOS/LAS VOCALES** **DEL CONSEJO ESCOLAR**

**4. 1** Corresponde a los miembros del Consejo Escolar:

- a) Recibir notificación, con cinco días de antelación como mínimo, por parte del/la Presidente/a del Consejo, de las diferentes convocatorias a las que se les citen con el orden del día que corresponda, así como, en caso necesario, la documentación previa sobre los temas motivo de debate.
- b) Participar en los debates de las sesiones.
- c) Ejercer su derecho al voto que, en todo caso, será personal e intransferible; formular su voto particular, así como expresar el sentido del mismo y los motivos que lo justifican.
- d) Formular ruegos y preguntas, cuando se haya concluido con los puntos del orden del día.
- e) Obtener la información precisa para cumplir las funciones asignadas.

**4. 2** Los miembros del Consejo Escolar no podrán atribuirse las funciones de representación reconocidas a éste, salvo que expresamente se les haya otorgado por una norma o por acuerdo válidamente adoptado, para cada caso concreto, por el propio Consejo.

#### **Artículo 5** **COMPETENCIAS DEL/LA SECRETARIO/A** **DEL CONSEJO ESCOLAR**

**5. 1** Corresponde al Secretario/a del Consejo Escolar:

- a) Participar en las reuniones con voz pero sin voto.
- b) Efectuar la convocatoria de las sesiones del Consejo por orden de su presidente/a, así como las citaciones de los miembros del mismo.
- c) Recibir las comunicaciones de los miembros del Consejo, es decir, notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquier otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.
- d) Preparar el despacho de los asuntos y redactar las actas de las sesiones.

e) Kontseiluak hartutako kontsulten, irizpenen eta erabakien ziurtagiriak egitea, ondoren Lehendakariak ikus-onesteko.

**5. 2** Idazkaririk ez balego, ez etortzerik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalik izanez gero, Idazkaria, Lehendakariak izendatutako Eskola Kontseilukoa izango den irakasle batek ordeztuko du. Kasu honetan, Idazkari-lanetan arituko denak hitz egiteko eta botoa emateko eskubideak izango ditu.

## **6. Artikulua** **ESKOLA-KONTSEILUKO BILHEREN** **ERREGIMENA**

**6. 1** Bilerak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko Eskola Kontseiluaren baliozko eraketarako, lehendakariak eta idazkariak, edo hala badagokio, legearen arabera ordezkatzten dituztenek egon beharko dute. Hala ere, 2.11. artikuluan adierazitakoa jarraitu beharko dute.

**6. 2** Ezin izango da, bilerako gai-zerrendan ez dagoen gairik eztabaidatu, edo bere inguruan erabakirik hartu, Kontseiluko kide guztiak ez badaude eta gehiengoaren aldeko boto bidez gai berriaren premia adierazten ez bada behintzat.

**6. 3** Idazkariak edo bere ordezkariak dagoen pertsonak, Eskola Kontseiluak egiten duen bilera bakoitzeko akta egingo du. Aktak derrigorrez ondoko datuak adieraziko ditu:

- Bilerara bertaratu direnak.
- Bilerako gai-zerrenda
- Bilera egin den tokia eta denbora
- Eztabaida-puntu nagusiak, eta hartutako erabakien edukia.

**6. 4** Arrazoi desberdinengatik Eskola Kontseiluko aktak argitaratu behar direnean, bertatik, pertsona zehatzengan eta euren irudian eragin dezaketen erabakiak kenduko dira.

**6. 5** Onartutako aktak balio frogagarria izango du.

**6. 6** Aktan, Kontseiluko kideek eskatuta, hartutako erabakiaren aurkako botoak, abstentzioa, eta hau justifikatzen duten arrazoiak edo aldeko botoen zentzua adieraziko dituzte. Era berean kide guztiak, euren hitzaldiaren edo proposamenaren transkripzio osoa eskatzeko eskubidea dute, beti ere eskaera-unean edo Lehendakariak adierazitako epean, bere hitzaldiarekin bat etorriko den testua aurkezten badute; horrela adieraziz aktan edo kopia erantsiz.

e) Expedir certificaciones de las consultas dictámenes y acuerdos adoptados por el Consejo, para ser visados por su Presidente/a.

**5. 2** Por motivo de vacante, ausencia, enfermedad, u otra causa legal, el Secretario será sustituido por un profesor/a miembro del Consejo Escolar designado por la/el Presidenta/e. En este caso, quien desempeñe las funciones de Secretario/a tendrá derecho a voz y voto.

## **Artículo 6** **RÉGIMEN DE LAS SESIONES DEL** **CONSEJO ESCOLAR**

**6. 1** Para la válida constitución del Consejo Escolar a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, se requerirá la presencia del/la presidente/a y secretario/a o, en su caso, de quienes legalmente les sustituyan, ateniéndose, en cualquier caso, a lo señalado en el artículo 2.11.

**6. 2** No podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure incluido en el orden del día salvo que estén presentes todos los miembros del Consejo y sea declarada la urgencia del nuevo asunto por el voto favorable de la mayoría.

**6. 3** De cada sesión que celebre el Consejo Escolar se levantará acta por el/la secretario/a o quien le sustituya en el ejercicio de dicha función. El acta especificará, necesariamente:

- Los/las asistentes.
- El orden del día de la reunión.
- El lugar y tiempo en que se ha celebrado.
- Los puntos principales de las deliberaciones, y el contenido de los acuerdos adoptados.

**6. 4** Cuando por diversos motivos haya que dar publicidad a las actas de Consejo Escolar, se eliminarán de las mismas aquellos acuerdos que se refieran a personas concretas y que puedan afectar a su imagen.

**6. 5** El acta aprobada tendrá valor probatorio.

**6. 6** En el acta figurará, a solicitud de los/las respectivos miembros del Consejo, el voto contrario al acuerdo adoptado, su abstención y los motivos que la justifiquen o el sentido de su voto favorable. Así mismo, cualquier miembro tiene derecho a solicitar la transcripción íntegra de su intervención o propuesta, siempre que aporte en el acto, o en el plazo que señale la presidencia, el texto que se corresponda con dicha intervención, haciéndose así

**6. 7** Gehiengoaren erabakiarekin bat ez datozen kideek, idatzizko boto partikularra eman ahal izango dute, bi laneguneko epean. Boto hau onartutako testuan sartuko da.

**6. 8** Kontseiluko kideek botoa aurka ematean edo botorik ez ematean, erabakietatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunetatik at geratuko dira.

**6. 9** Aktak, bilera berean edo ondokoan irakurri eta onartu egingo dira. Hala ere, idazkariak, hartutako erabakiei buruzko egiaztagiria egin ahal izango du, aktaren ondoko onarpena kaltetu gabe. Akta onartu aurretik hartutako erabakien egiaztagirietan gertakari hori adieraziko da.

**6. 10** Garrantzi handi samarreko gaitan edo bertaratuen hirurenak eskatzen badu, botoa, banakako boto-papieren bidez egingo da, ondoren Ikastetxeko lehendakariak eta idazkariak boto horien zenbaketa egingo da eta gertakari hauek guztiak, dagokion aktan adierazita geratuko dira.

## **7. Atala** **BATZORDE IRAUNKORRA**

### **7. 1** Partaideak:

- Institutuko zuzendaria batzordearen presidentea izango da eta berak jasoko du egiten diren bilheren akta.
- Eskola Kontseiluko partaide diren irakasleen artean hautatutako irakasle bi.
- Eskola Kontseiluan partaide direnen artean hautatutako guraso bi.
- Eskola Kontseiluan ordezkioak direnen artean hautatutako bi ikasle.
- Eskola Kontseiluan Udalaren ordezkaria duen pertsona.

**7. 2** Batzorde Iraunkorrak, bere funtzioak bete ahal izateko, Eskola-komunitateko beste edozein partaideri deitu ahal izango dio. Era berean, Eskola-komunitateko edozein partaidek batzordean parte harzea eskatu ahal izango du puntualki aurretik arazoitutako eskaera egiten badu.

### **7. 3** Eginkizunak:

- a)** Eskola Kontseiluan aurkeztu eta onartu baino lehen, Formakuntza programa, Eskolaz kanpoko eta gainontzeko ekintzen plangintza nahiz urteko kudeaketa egitaraua aztertzea. Era berean, bete daitezkeen zaintza ere badagokio.

constar en el acta o uniéndose copia a la misma.

**6. 7** Los miembros que discrepen del acuerdo mayoritario podrán formular voto particular por escrito en el plazo de dos días hábiles, que se incorporará al texto aprobado.

**6. 8** Cuando los miembros del Consejo voten en contra o se abstengan, quedarán exentos de la responsabilidad que, en su caso, pueda derivarse de los acuerdos.

**6. 9** Las actas se leerán y aprobarán en la misma o en la siguiente sesión del Consejo; pudiendo, no obstante, emitir el/la secretario/a certificación sobre los acuerdos específicos que se hayan adoptado, sin perjuicio de la ulterior aprobación del acta. En las certificaciones de acuerdos adoptados emitidas con anterioridad a la aprobación del acta se hará constar expresamente tal circunstancia.

**6. 10** Cuando se trate de temas de cierta trascendencia o lo solicite un tercio de los/las asistentes, la votación se realizará mediante la emisión de papeleta de voto individual, procediéndose, acto seguido, al escrutinio de los votos por parte del/la presidente/a y del/la secretario/a del Centro, quedando constancia en el acta correspondiente de todos estos hechos.

## **Artículo 7** **LA COMISIÓN PERMANENTE**

### **7. 1** Composición:

- La directora o director, que actuará como presidenta/e de la Comisión y que levantará el acta de las reuniones de la misma.
- Dos profesores o profesoras elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- Dos padres o madres elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- Dos alumnos o alumnas elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- La/el representante de la Corporación Municipal en el Consejo Escolar.

**7. 2** La Comisión Permanente podrá convocar a cualquier otro miembro de la Comunidad Escolar cuando así lo considere necesario para el cumplimiento de sus funciones. Del mismo modo, cualquier miembro de la Comunidad Escolar podrá pedir su asistencia puntual a la comisión previa solicitud razonada.

### **7. 3** Funciones:

- a)** Analizar previamente el Programa de actividades de formación, complementarias y extraescolares y el Programa anual de gestión, para su aprobación por el Consejo Escolar. Así como la vigilancia directa de su ejecución.



- |   |  |
|---|--|
| <p>b) Ikasturteko memoriaren zirriborroa aurretik aztertzea, Eskola Kontseiluan eztabaidatua eta onartua izan dadin.</p> <p>c) Eskola Kontseiluko bilheren gaiordena prestatzea eta planteatutako gaien eztabaidarako behar den dokumentazioa gertatzea eta eskuratzea.</p> <p>d) Premiazko gaiak direnean, Eskola Kontseilua ordezkatzea. Ondoren hartutako erabakien berri emango diolarik Ordezkapen Organo Gorenari.</p> <p>e) Zuzendaritza taldearentzat kontsulta organo gisa jokatzeko zenbait gaitan, berauek zuzendaritzaren kompetentzia izan arren, bheren garrantziagatik Eskola-elkartearen iritzia ezagutu nahi edo behar denean.</p> <p>f) Eskola Kontseiluak emandako beste edozein funtzio edo zeregina.</p> <p>g) Eskola Kontseiluan sor daitezkeen hutsuneak betetzeko prozedura ezartzea.</p> | <p>b) Estudiar con antelación el borrador de Memoria anual, para su discusión y aprobación por parte del Consejo Escolar.</p> <p>c) Preparar el orden del día de las sesiones del Consejo y disponer la documentación necesaria para tratar los diferentes temas planteados.</p> <p>d) Sustituir en casos de urgencia al Consejo Escolar, dando cuenta al mismo de las decisiones tomadas.</p> <p>e) Servir de órgano consultivo al equipo directivo en cuestiones que, aún siendo de la competencia este último, por su trascendencia desee conocer la opinión de la Comunidad Escolar antes de la toma de decisión.</p> <p>f) Cualquier otra función o tarea que le encomiende el Consejo Escolar.</p> <p>g) Establecer el procedimiento para completar el número de miembros del Consejo Escolar, en caso de que se produzcan vacantes.</p> |
|---|--|

## 8. Atala EKONOMI-BATZORDEA

### 8.1 Partaideak:

- Batzordeko presidentea izango den Ikastetxeko idazkaria,
- Eskola Kontseiluan dauden irakasleen artean hautatutako irakasle bat.
- Eskola Kontseiluan partaide direnen artean hautatutako guraso bi.
- Eskola Kontseiluan ordezkoak direnen artean hautatutako bi ikasle.

### 8.2 Eginkizunak:

- a) Aurrekontuaren eta gastu likidazioaren zirriborroak egitea, ondoren Eskola Kontseiluak onar ditzan.
- b) Ikastetxeko gai ekonomikoen jarraipena egitea.
- c) Eskola Kontseiluari, zentroaren premien berri adierazi, ikastetxeko instalazioen eta ekipamenduen, eta hauen kontserbazioaren eta berrikuntzaren inguruan; eta era berean, Zentroko inbentarioaren eguneratzea kontrolatu.
- d) Zentroaren urteko kudeaketa ekonomikoko programaren (aurrekontua barne), zentroko ekipamenduan eta instalazioetan dauden hobekuntzen eta premien burutzapenari buruzko urteko memoria egin, ondoren Eskola Kontseiluak onartzeko.

## Artículo 8 LA COMISIÓN ECONÓMICA

### 8.1 Composición:

- El secretario o secretaria, que actuará como presidente/a de la comisión
- Un profesor o profesora elegido/a entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- Dos padres o madres elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- Dos alumnos o alumnas elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.

### 8.2 Funciones:

- a) Elaborar el borrador del Proyecto de gestión y su presupuesto para su aprobación en el Consejo Escolar.
- b) Llevar el seguimiento de las cuestiones económicas del Centro.
- c) Informar al Consejo Escolar sobre las necesidades del centro en materia de instalaciones y equipamiento escolar, así como de su conservación y renovación y controlar la actualización del inventario del Centro.
- d) Elaborar una memoria anual sobre la ejecución del Programa anual de gestión económica del Centro con su presupuesto, así como de las mejoras y necesidades existentes en el equipamiento e instalaciones, para su posterior aprobación por el Consejo Escolar.

## 9. Atala BIZIKIDETZA BATZORDEA

### 9.1 Partaideak:

- Batzordeko presidentea izango den Ikastetxeko ikasketaburua.
- Eskola Kontseiluko partaide diren irakasleen artean hautatutako irakasle bi.
- Eskola Kontseiluan partaide direnen artean hautatutako bi guraso.
- Eskola Kontseiluan ordezkioak direnen artean hautatutako bi ikasle.
- Ikastetxeko orientatzailea batzordeko bileretara joango da batzordeak berak hala eskatuz gero.
  
- Ikasle baten jokaerei buruz hitzegin behar denean, bere tutorea.
- Instruktoeak batzordeko bileretan parte hartuko du beharrezkoa denean.

### 9.2 Eginkizunak:

- a) Antolamendu eta Funtzionamendurako Araudia egitea, ondoren Eskola Kontseiluak onar dezan.
  
- b) AJA urtero gainbegiratzea eta komenigarritzat jotzen diren aldaketak Eskola Kontseiluari aurkeztea beren onarpenerako.
  
- c) Ikastetxeko bizikidetza behar bezalakoa izan dadila zaintzea, berau hobetzeko proposamenak egitea eta istilu txikiak aurrikustea, Elkarbizitza Behatokiarekin batera.
  
- d) Gerta daitezkeen aurkakoak diren eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak ezagutzea Eskola Kontseiluaren izenean. Batzordeak ahalmena izango du jarrera horiei ezarritako neurri zuzentzaileei legezkiekeen erreklamazioak tratatzeko "Ikasleen Eskubide eta Betebeharrak" dekretuaren araudiaren arabera.

9.3. Batzordeak Eskola Kontseiluari, bizikidetasun-arauei eta hauen barne esleituko zaion guztiaren berri emango dio.

## 10. Atala EUSKARA- ETA KULTURA-BATZORDEA

### 10.1 Partaideak:

- Irakasleen bi ordezkari.
- Gurasoen elkarteko lau ordezkari, hauen artean Eskola Kontseiluko bat.
- Ikasleen bi ordezkari.

### 10.2 Eginkizunak:

- a) Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutaraztea.

## Artículo 9 LA COMISIÓN DE CONVIVENCIA

### 9.1 Composición:

- El/la Jefe de estudios que actuará como presidenta/e de la misma.
- Dos profesores o profesoras elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- Dos padres o madres elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- Dos alumnos o alumnas elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- La orientadora u orientador del Centro, que acudirá a las reuniones de la comisión a petición de ésta.
- La tutora o tutor correspondiente cuando se trate de analizar actuaciones de un alumno o alumna.
- El instructor o instructora participará en las reuniones de la comisión cuando sea necesario.

### 9.2 Funciones:

- a) Elaborar el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) para su aprobación en el Consejo Escolar.
  
- b) Revisar anualmente el ROF y plantear al Consejo Escolar para su aprobación las modificaciones oportunas.
  
- c) Velar por el buen funcionamiento de la convivencia escolar, elaborar propuestas para su mejora y la prevención de pequeños desajustes en colaboración con el Observatorio de la Convivencia..
  
- d) Conocer, en nombre del Consejo Escolar, los casos de conductas contrarias y gravemente perjudiciales a la convivencia, con capacidad para tratar las reclamaciones sobre las medidas correctoras impuestas en los términos establecidos por el Decreto de Derechos y Deberes del alumnado.

9.3 La comisión informará al Consejo sobre la aplicación de las normas de convivencia y de todo aquello que se le encomiende sobre las mismas.

## Artículo 10 LA COMISIÓN DE EUSKARA Y CULTURA

### 10.1 Composición:

- Dos representantes del profesorado.
- Cuatro representantes de padres entre los que alguno deberá pertenecer al Consejo Escolar.
- Dos representantes del alumnado.

### 10.2 Funciones:

- a) Favorecer el conocimiento de la cultura y tradiciones de Euskal Herria.

- |  |  |
|--|--|
| <p>b) Irteerak, barnetegiak, ikasle-trukeak eta abar antolatzea, eta ikasleek jarduera hauetan parte hartzea bultzatzea.</p> | <p>b) Organizar salidas, internados, intercambios, etc. y favorecer la participación del alumnado en las mismas.</p> |
| <p>c) Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzea.</p>  | <p>c) Organizar actividades extraescolares y complementarias.</p>  |
| <p>d) Ikasturte amaierako jaia eta beste antolatzea.</p>   | <p>d) Organizar la fiesta de fin de curso, etc.</p>  |
| <p>e) Euskararen erabilpena sustatzeko jarduerak antolatzea.</p>   | <p>e) Organizar actividades encaminadas a favorecer el uso del euskera.</p>  |
| <p>f) Familiei interesgarri izan dakizkien gaien buruzko hitzaldiak (guraso-eskola) antolatzea.</p>                          | <p>f) Organizar charlas para las familias sobre temas que puedan ser de su interés (escuela de padres y madres).</p> |
| <p>g) Herri erakunde eta pribatuekiko harremanetan euskararen erabilera bermatzea.</p>                                       | <p>g) Garantizar el uso del euskera en las relaciones del Centro con otras instituciones públicas y privadas.</p>    |

### **11. Atala**

#### **SEGURTASUN ETA HIGIENE BATZORDEA**

##### **11. 1 Partaideak:**

- Batzordearen presidentea izango den Ikastetxeko idazkaria.
- Eskola Kontseiluko partaide direnen irakasleen artean hautatutako irakasle bat.
- Eskola Kontseiluan partaide direnen artean hautatutako guraso bi.
- Eskola Kontseiluan ordezkari direnen artean hautatutako bi ikasle.

##### **11. 2 Eginkizunak:**

- a) Osasun, ekologia, ingurugiro, eta ohitura osasuntsuen inguruko hitzaldiak antolatzea.
- b) Osasun agintariei ikasleen osasunerako beharrezko diren neurriak eskatzea.
- c) Atalari dagokion arazorik duten ikasleentzat irtenbideak bilatzea.
- d) Ikastetxeko garbitasunaren ardura hartzea eta bereziki komunetako ekipamendua.
- e) Tabakoaren inguruko normatiba bete dadin zaintzea.
- f) Ikasgeletan nahikoa kalefazioa egon dadin zaintzea.
- g) Gerta daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko larrialdi plana prestatzea eta horretarako behar diren laguntzak eskatzea.
- h) Ikastetxeak leku egokian eta behar bazala onuririk botikina izan dezan bermatzea.

### **Artículo 11**

#### **LA COMISIÓN DE SEGURIDAD E HIGIENE**

##### **11. 1 Composición:**

- El secretario o secretaria del Centro que actuará como presidente/a de la misma.
- Un profesor o profesora elegido/a entre los/las representantes del Consejo Escolar.
- Dos padres o madres elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.
- Dos alumnos o alumnas elegidos/as entre sus representantes en el Consejo Escolar.

##### **11. 2 Funciones:**

- a) Organizar charlas sobre educación en salud, ecología, medio ambiente y hábitos saludables.
- b) Recabar de las instituciones sanitarias las medidas necesarias para el control de la salud del alumnado.
- c) Buscar soluciones para los alumnos y alumnas que presenten algún problema específico.
- d) Velar por la higiene del Centro cuidando de que los servicios estén debidamente equipados.
- e) Velar para que se cumpla la normativa vigente sobre el tabaco.
- f) Velar para que haya suficiente temperatura en las aulas.
- g) Elaborar un plan de emergencia para prevenir cualquier tipo de siniestro, recabando para ello el asesoramiento que sea preciso.
- h) Cuidar de que el Centro tenga un botiquín debidamente equipado y en lugar accesible.

**12. Atala**  
**JANTOKI-BATZORDEA**

**12. 1 Partaideak:**

- Ikastetxeko zuzendaria.
- Hiru guraso, horien artean Eskola Kontseiluko ordezkari bat eta jantoki-zerbitzua erabiltzen duten haurren guraso bat.
- Jantoki-zerbitzua erabiltzen duten ikasleen bi ordezkari.

**12. 2 Eginkizunak:**

- a) Jantokiaren funtzionamendurako arauak taxutzea.
- b) Enpresa hornitzaileekin harremanetan jarri eta harreman horiez arduratzea.
- c) Ikasleei ematen zaizkien jakien kalitatea eta kopurua egokia dela, eta bheren adinari dagokien arau dietetikoekin bat datorrela ziurtatzea.
- d) Prezioei eta begirale-kopuruari buruzko irizpideak finkatzea.
- e) Begiraleak kontratau eta hauekiko lan-harremanaren gaineko ardura bere gain hartzea.
- f) Jantokia, sukaldea eta komunak higiene-eta garbitasun-baldintza onetan mantentzen direla arduratzea.
- g) Jantokiaren kudeaketa ekonomikoa eramatea.

**13. Atala**  
**BATZORDEEN FUNTZIONAMENDURAKO**  
**ARAUAK**

**13. 1** Batzorde bakoitzak urtero prestatuko du ekintza eta funtzioen plangintza eta Kontseluari aurkeztuko dio bere onarpenerako.

**13. 2** Batzorde bakoitzak bere funtzioen esparruan zaindu beharko du Eskola Kontseiluak ezarritako arauak bete daitezen.

**13. 3** Eskola Kontseiluak behin-behineko edo behin betiko batzorde berriak eratu ahal izango ditu, Kontseiluak berak ezarriko dituen baldintzetan.

**13. 4** Batzordeak gutxienez hiru aldiz bilduko dira ikasturtean zehar. Bilerak hauek Eskola Kontseilua bildu baino lehen egingo dira.

**13. 5** Batzorde guztiek Eskola Kontseiluko ordezkari gisa eta bere aginduak jarraituz jardungo

**Artículo 12**  
**LA COMISIÓN DE COMEDOR**

**12. 1 Composición:**

- La directora o director del centro.
- Tres padres/madres, entre los que deberá haber algún representante del Consejo Escolar y alguno cuyos hijos/as utilicen comedor.
- Dos representantes del alumnado, que utilicen el servicio de comedor.

**12. 2 Funciones:**

- a) Elaborar las normas de funcionamiento del comedor.
- b) Establecer y ocuparse de las relaciones con las empresas proveedoras.
- c) Cuidar que la calidad y cantidad de alimentos sea correcta y se atenga a unas normas dietéticas adecuadas a la edad del alumnado.
- d) Fijar criterios en cuanto a precios y número de monitoras/es.
- e) Realizar la contratación de monitoras y monitores y hacerse cargo de la relación laboral con ellos y ellas.
- f) Cuidar de que las instalaciones del comedor, cocina y servicios se mantengan en condiciones adecuadas de higiene y limpieza.
- g) Llevar la gestión económica del comedor.

**Artículo 13**  
**NORMAS DE FUNCIONAMIENTO**  
**DE LAS COMISIONES**

**13. 1** Cada comisión elaborará, con carácter anual, un programa de actuación y tareas que se presentará al Consejo Escolar para su aprobación.

**13. 2** Cada una de las comisiones velará por el cumplimiento de las normas establecidas por el Consejo Escolar en el ámbito de sus competencias.

**13. 3** El Consejo Escolar podrá crear otras comisiones, puntuales o estables, para la realización de funciones o tareas concretas en los términos que él mismo establezca.

**13. 4** Las Comisiones deberán reunirse al menos tres veces al año. Estas reuniones serán previas a las del Consejo Escolar.

**13. 5** Todas las comisiones actuarán por delegación y mandato del Consejo Escolar y sus decisiones estarán siempre supeditadas al visto bueno del

dute. Beraz, hartutako erabakiek Kontseiluaren onespena jaso beharko dute.

#### **Artículo 14 ELKARBIZITZA-BEHATOKIA**

**Definizioa:** EB ikastetxeko elkarbizitza kudeatzeko organoa da, hain zuzen ere, partaidetza eta kolaborazioa dira hezgarriaren bizitza. Horrexegatik sortu da EB, jardun demokratikoa sustatuta, dominazio-sumisio eskema guztiak ezabatze eta berdinen arteko harremanak sustatzeko. Pertsona guztiak izan behar dute bheren erabakiak hartzeko modua, betiere, errespetua, elkarriketa, negoziazioa eta adostasuna oinarri hartuta.

**Helburua:** Harreman positiboak eta elkarbizitza osasungarria eraikitzen laguntzea, horixe da bere xedea.

